



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

PRENTSA OHARRA

2016/07/06

## **Israelgo enbaxadoreak Gernika bisitau dau**

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteak Daniel Kutner Israelgo enbaxadorea hartu dau Gernikan gaur eguerdian. Enbaxadoreagaz batera Yinam Cohen Ekonomia eta Barrikuntza Sailburua eta Hagit Mualem Kultura Sailburua etorri dira. Euskadin egin dauen egotaldi ofizialean, Israelgo ordezkariak, euskaldunontzat balio historiko handia dauen Gernikako Batzarretxea bisitau gura izan dau.

Enbaxadoreak Bizkaiko batzarretxeko eskilaretan bertan jaso dau harrerea, txistuan “Agur Jaunak”, errespetu eta harrera sinboloa, entzuten zan bitartean. Txistulariek eta Batzar Nagusietako presidenteak lagunduta, konbidatuek, Batzarretxearen eta Gernikako Arbolaren esanahiaren gaineko ikus-entzunezko laburra ikusi ostean, Batzarretako egoitzaatik ibilpidetxoa egin dabe, Gernikako Arbola Zaharraren eta Haretx gaztearen ondoan argazkiak atera aurretik.

Ahaldun nagusiek eta Lehendakariak euren zina egiten daben leku berean, enbaxadoreak dantzari bikote baten omenaldia jaso dau, ohorezko “aurrezku” batekin, eta horren ostean bisita gidaua egin da Batzarretxe barrura (osoko bilkuren aretoa, Beirategiaren aretoa-Museoa, artxibategi-liburutegia). Amaitzeko, Batzarretako presidentearen bulegora joan dira, eta bertan enbaxadoreak “Batzarretxeko Ohorezko Liburuan” sinatu eta mezua idatzi dau.

Batzar Nagusietako presidenteak, euskal eskubide historikoen berezitasuna azaltzen dauen “La Foralidad” liburuaren ale bat oparitu deutso Israelgo ordezkariari.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

NOTA DE PRENSA

06/07/2016

## **El embajador de Israel visita Gernika**

La presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha recibido este mediodía en Gernika al embajador de Israel, Daniel Kutner, y a sus dos acompañantes, el Consejero de Economía e Innovación, Yinam Cohen, y la Consejera de Cultura, Hagit Mualem. En su estancia oficial en Euskadi, la delegación israelí ha querido detenerse en la Casa de Juntas de Gernika, lugar que reúne un significado valor histórico.

El embajador ha sido recibido en la misma escalinata del parlamento vizcaíno con los toques al txistu del “Agur Jaunak”, símbolo de respeto y acogida. Arropados por los txistularis y la presidenta de la Cámara, los invitados, han paseado por la sede parlamentaria para inmortalizarse junto al Árbol Viejo y al joven Roble de Gernika.

En el mismo lugar donde juran Diputados generales y Lehendakaris, el embajador, visiblemente emocionado, ha sido homenajeado por una pareja de dantzaris con un “aurreku” de honor, a lo que ha seguido después una visita guiada al interior de la Casa de Juntas (salón de plenos, sala de la Vidriera-Museo, archivo-biblioteca), para terminar en el despacho presidencial con la firma y escritura de un mensaje en el Libro de Honor de la Casa de Juntas. La casualidad ha querido que lo haga tras la rúbrica del embajador de Palestina, Musa Odeh, que estuvo de visita en la villa foral hace hoy un mes.

Como viene siendo habitual en las visitas significativas de carácter institucional, la Presidenta de Juntas ha obsequiado a la delegación israelí con un ejemplar del libro “La Foralidad” donde se explica la singularidad de los derechos históricos vascos.